




ZERGAK TXOSTENA

2021/12/01



ETORKIZUNA ORAIN
Es futuro



Euskadi, auzolana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Aurkibidea

1. Testuingurua.....	3
2. Laburpen exekutiboa.....	8
3. EAEn parte hartuko duten ikastetxeak	14
3.1 Datu orokorrak	14
4. Araban parte hartuko duten ikastetxeak.....	18
4.1 Arabako datu estatistikoak	18
5. Bizkaian parte hartuko duten ikastetxeak	22
5.1 Bizkaiko datu estatistikoak.....	22
5.2 Bizkaian bukatu duten ikastetxeak	26
6. Gipuzkoan parte hartuko duten ikastetxeak	26
6.1 Gipuzkoako datu estatistikoak.....	27
6.2 Gipuzkoan bukatu duten ikastetxeak	30
7. Ikastetxeek lortu nahi dituzten helburuak	30
8. Programaren ezarpen-maila eta gauzatzea	31
9. Programaren probetxu-mailaren ebaluazioa.....	31
10. Irakasleek programari buruz egindako balorazioa	32

1. Testuingurua

Osasun-egoerak egonkorragoa dirudien arren eta aurreko ikasturtean ikasitako guztia lagungarria den arren, 2021/2022 ikasturtea ikastaro berezia izaten ari da. Ikastetxeek murrizketa batzuk izaten jarraitzen dute eta, ondorioz, Ekonomia eta zergak programak ere iaz ezarritako aldaketekin jarraitu behar izan du.

Hasiera-hasieratik, Ekonomia eta zergak programak hainbat ibilbide proposatu ditu, ikastetxeen interes eta beharretara ahalik eta gehien egokitzeko. Une honetan, hauek dira aukerak:

- Ibilbide murriztua: lau saioko ibilbidea da, eta honako hauek osatzen dute: 1. modulua (ikasleentzako aurkezpen multimedia interaktiboa) eta 2. modulua (online plataforma, joko-mekanikekin).
- Ibilbide osoa: zazpi saioko ibilbidea da, eta honako hauek osatzen dute: 1. modulua (ikasleentzako aurkezpen multimedia interaktiboa), 2. modulua (online plataforma, joko-mekanikekin) eta 3. modulua (simulagailu sozioekonomikoa).
- Ibilbide hedatua: hamar saioko ibilbidea da, eta ibilbide osoaren modulu berberak ditu.

Aldi berean, kasu guztietan, 2. eta 3. moduluetakoa saioak dinamizatuko dituen irakasleekin aurrez aurreko bilera bat egiten da. Biler horretan, besteak beste, honako hauek adierazten zaizkie: plataformetara nola sartu, ikasleen bilakaeraren jarraipena nola egin edo plataformen funtzionaltasunak biltzen dituen tutoriala non aurkitu. Biler horretan bertan, sarbide-gakoak ere ematen zaizkie, eta, zalantzarik izanez gero, gurekin harremanetan jartzeko dituzten baliabideak gogorarazten zaizkie.

Irakasleekin egindako bilera horrez gain, ibilbideen laburpenean ikus daitekeen bezala, guztietan aurrez aurre egiten den ikasleentzako aurkezpen multimedia interaktibo bat dago, zeinarekin ikasgelan programari hasiera ematen zaion.

Hori dela eta, geletara itzultzea ohikoa izango ez zela aurreikusita eta osasun-egoera normaltasunera itzuli aurretik programa martxan jarri nahi zuten ikastetxeek zentrotik kanpoko pertsonak hartzeko orduan zuhurtziaz jokatuko zutela edota lehenengo saioa aurrez aurre ez egitea nahiago zuten ikastetxeak egongo liratekeelakoan, aurkezpen presentzial hori ordeztzen duen % 100eko online alternatiba bat proposatu genuen.

Programaren gainerakoari dagokionez, bai joko-dinamikak dituen plataforma bai simulagailu sozioekonomikoa online lantzen direla kontuan hartuta, aldaketak oso txikiak izan dira. Izan ere, proposatu genituen aldaketek programaren %25ari bakarrik eragiten diote ibilbide murriztuaren kasuan, %14ari ibilbide osoaren kasuan eta %10ari ibilbide hedatuaren kasuan.

Beti bezala, ikastetxeak izan du azken erabakia, baina, parte-hartzea sustatzeko erraztasunak emate aldera, interesgarritzat jo dugu irakasleen prestakuntzan, ikasleen prestakuntzan eta joko-dinamikak dituen plataformaren eta simulagailu sozioekonomikoaren erabileran aldaketa hauek proposatzea.

Honako puntu hauetan zehazten dira:

1. Irakasleen prestakuntzan aldaketak:

%100 online modalitatea aukeratu duten ikastetxeetan, ikastetxera joan eta irakasleekin aurrez aurre bildu beharrean, honako hau egingo dugu:

Lehenengo urratsa irakasleekin harremanetan jartzea izango da, posta elektronikoaren bidez edo telefono-dei baten bidez, hurrengo saioak dinamizatuko dituzten pertsonak gurekin bildu ahal izateko egun eta ordu baterako hitzordua jartzeko. kontaktu horretan, ikasleekin egiten dugun aurkezpenarako behar diren baliabide teknikoak ere berrikusiko ditugu, hala nola ordenagailu eramangarria edo mahai gaineko ordenagailua web-kamerarekin eta mikrofonoarekin, Internetarako konexioa eta proiektorea.

Irakasleekin bilerak egingo dira ikasleekin aurkezpena egin baino egun batzuk lehenago, geroago edo ikasleekin aurkezpena egin dugun egun berean, eta bideokonferentzia baten bidez egingo dira.

Jakina, irakasleen zailtasun teknikoak edo errezeloak ahalik eta gutxien izan daitezzen, gu izango gara erabili ohi duten eta segurtasun-sentsazio handiagoa ematen dien bideokonferentzietarako plataformara egokitu garenak.

Bideokonferentzia sortu eta bertara sartzeko esteka bidali ondoren, adostutako egunean eta orduan konektatuko gara, besteak beste, oinarriko alderdi batzuk gogorarazteko, hala nola programaren helburua, programaosatzen duten moduluak eta parte hartuko duten ikasleekin lotutako datuak zuzenak direla egiaztatzeke.

Jarraian, irakaslearekin pantaila partekatuko dugu, plataformara nola sartu behar duen eta plataformaren atalik garrantzitsuenak zein diren adierazteko, besteak beste, banakako estatistikak edo tutoriala.

Jakina, bilera aprobetxatuz, izan ditzaketen galderei erantzungo diegu eta une horretan sor daitezkeen zalantzak argituko ditugu. Gainera, etorkizunean behar izanez gero, gurekin harremanetan nola jar daitezkeen adieraziko diegu. Hala ere, normalean egiten dugun bezala, modu proaktiboan irakasleekin harremanetan jartzen gara aurkezpena

egin eta egun batzuetara, berriro plataformara sartzeko eta ikasleei sarbide-gakoak helarazteko aukera izan duten eta zalantzaren edo zailtasunen bat aurkitu duten jakiteko.

2. Ikasleen prestakuntzan aldaketak:

Ikastetxe bakoitzak 2021/2022 ikasturte honetan duen egoera desberdina da, eta pertsona batzuk ikasgelan presentzialki dauden eta beste pertsona batzuk konfinatuta dauden kontuan hartuta, aldaketak egon daitezke.

Hala eta guztiz ere, egoera Webinar, Teams, Skype edo beste edozein doako, intuitibo eta pertsona guztien eskura dagoen tresna baliokideren bidez egindako bideokonferentzia baten bidez konpondu da. Logikoa denez, ikasleekin egindako bideokonferentzia honetan ere erabili ohi dituzten plataformetara egokitu gara, ahal den neurrian haien lana errazteko.

Arrazoia edozein dela ere, ikasle batzuek online lan egiten dutenean eta beste batzuek presentzialki lan egiten dutenean, alde batetik, irakasleek bideokonferentziarako esteka helarazten diete egun horretan modu telematikoan lan egiten duten pertsoneri, eta, bestetik, bideokonferentziara gelako ordenagailuarekin konektatzen dira eta fisikoki ikastetxean dauden pertsonentzat proiektatzen dute.

Aurkeztu, ongietorria eman eta bideokonferentzian egon behar duten pertsona guztiak bertan daudela egiaztatu ondoren, aurkezpenarekin hasten gara. Mekanika honako hau da:

- Programaren eduki teorikoarekin lotutako galdera bat planteatzen da eta erantzuteko hainbat aukera proposatzen dira.

Bestalde, programa gelan martxan jartzen denean, irakasleak bertan egoten dira taldeek plataforma lantzen duten bitartean, eta pertsona desberdinen inplikazioa ebaluatu dezake, egoki iritziz gero, ikasleei kalifikazio desberdinak esleitzeko, baina, programa etxetik lantzen denean, hori ezinezkoa da. Gako indibidualizatuak esleituta, arazo hori ez da gertatzen, eta irakasleek egin dezaketen jarraipena zehatzagoa eta bidezkoagoa izatea bultzatzen dugu.

Hala eta guztiz ere, irakasleak onena ikasleek programa bikoteka edo burbuila-talde txikietan lantzea dela uste badu, zenbait aholku emango dizkiogu, adibidez, pertsona bakoitzak edukiak bere gakoa erabiliz lantzea eta testa gailu bakar batetik erantzuteko batzea.

2. Laburpen exekutiboa

Atal honetan Ekonomia eta zergak programaren alderdi esanguratsuenak azalduko ditugu. Datuak 2021eko abenduak 1era arte daude eguneratuta.

1. 2021eko abenduak 1era arte 248 ikastetxe atxikitu dira programara. Jarraian agertzen den bezala banatzen dira:

- Araba: 27
- Bizkaia: 131
- Gipuzkoa: 90

2. Jarraian, ikastetxeek hautatutako ibilbidea dela eta nola banatzen diren azaltzen da:

Lurralde historikoka:

Araban, momentuz, 22 ikastetxek erantzun dute bidalitako galdetegia (27 daude atxikituta - %81.48a)

- 4 saioko ibilbidea: 11/22 (%50)
- 7 saioko ibilbidea: 7/22 (%31.82)
- 10 saioko ibilbidea: 3/22 (%13.64)
- Ibilbide mistoa: 1/22 (%4.54)

Bizkaian, momentuz, 109 ikastetxek erantzun dute bidalitako galdetegia (131 daude atxikituta - %83.21a)

- 4 saioko ibilbidea: 46/109 (%42.2)
- 7 saioko ibilbidea: 34/109 (%31.19)
- 10 saioko ibilbidea: 25/109 (%22.94)
- Ibilbide mistoa: 2/114 (%3.67)

Gipuzkoan, momentuz, 71 ikastetxek erantzun dute bidalitako galdetegia (90 daude atxikituta - %78.89a)

- 4 saioko ibilbidea: 29/71 (%40.85)
- 7 saioko ibilbidea: 24/71 (%33.8)
- 10 saioko ibilbidea: 16/71 (%22.53)
- Ibilbide mistoa: 2/71 (%2.82)

Orokorrean:

Momentuz jasotako 202 galdetegiak kontuan hartuta:

- 4 saioko ibilbidea: 86/202 (%42.57)
- 7 saioko ibilbidea: 65/202 (%32.18)
- 10 saioko ibilbidea: 44/202 (%21.78)
- Ibilbide mistoa: 7/202 (%3.47)

3. Jarraian, ikastetxeek hautatutako hizkuntza dela eta nola banatzen diren azaltzen da:

Lurralde historikoka:

Araba:

- Eusk: 15/22 (%68.18)
- Gazt: 5/22 (%22.73)
- Misto: 2/22 (%9.09)

Bizkaia:

- Eusk: 71/109 (%65.14)
- Gazt: 31/109 (%28.44)
- Misto: 7/109 (%6.42)

Gipuzkoa:

- Eusk: 54/71 (%76.06)
- Gazt: 9/71 (%12.67)
- Misto: 8/71 (%11.27)

Orokorrean:

- Eusk: 140/202 (%69.31)
- Gazt: 45/202 (%22.28)
- Misto: 17/202 (%8.41)

4. Galdetegia erantzun duten 202 ikastetxeetatik 193k (%95.54) modalitate presentziala nahi dutela adierazi dute, 7k (%3.47) online modalitatea nahiago dutela esan dute eta 2k (%0.99) ez dute atal hori bete.

5. 201eko abenduak 1era arte jasotako galdetegiak kontuan hartuta programan 6.589 pertsona (3.082 neska, 3.274 mutil eta zehaztu gabeko 233 pertsona) parte hartuko dute. Gestioneten aldetik ikastetxe guztiek galdetegia bete dezaten lan egingo dugu.

6. 2021eko abenduak 1era arte 40 ikastetxe bisitatu dira (Araban 2, Bizkaia 23 eta Gipuzkoan 15) eta beste 25 ikastetxerekin hitzordua ezarri da (Araban 4, Bizkaia 10 eta Gipuzkoan 11). Ibilbidea eta lurraldea kontuan izanda, jarraian azaltzen den bezala banatzen dira:

PROGRAMA HASI DUTEN IKASTETXEAK				
Ibilbidea	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira EAE
4 saio	0	9	4	13
7 saio	2	9	5	16
10 saio	0	4	5	9
Misto	0	1	1	2
Guztira	2	23	15	40

HITZORDUA EZARRITA DUTEN IKASTETXEAK				
Ibilbidea	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Guztira EAE
4 saio	4	5	6	15
7 saio	0	4	3	7
10 saio	0	1	1	2
Misto	0	0	1	1
Guztira	4	10	11	25

7. Jasotako galdetegiak kontuan izanda, hilabete bakoitzeko zenbat hasiera aurreikusten ditugun azaltzen da hurrengo taulan:

AURREIKUSITAKO HASIERAK	
HILABETEA	IKASTETXE KOPURUA
Iraila	2
Urria	13
Azaroa	23
Abendua	21
Urtarrila	32
Otsaila	27
Martxoa	39
Apirila	23
Maiatza	22

8. Datozen hilabeteetarako espero dugun lan-karga dela eta, eta zentroen programa hasteko lehentasunak ahalik eta hobekien bete ahal izateko, bi pertsona sartuko ditugu taldean.

9. 2021eko abenduak 1era arte plataformaren erabilera jarraian azaltzen dena izan da:

- Plataforma 1.900 ordu baino gehiagoz erabili da.
- 669 talde/pertsona plataformara konektatu dira.
- 1.800 norgehiagoka baino gehiago bidali dira.
- 2.500 galdera baino gehiago agertu dira.
- 450 galdera ireki baino gehiago erantzun dira.

10. 2021eko abenduak 1era arte Gestionetek bidalitako galdetegia erantzun ez duten 22 ikastetxe daude.

11. Litzazioan adierazi bezala, programan hobekuntzak aplikatu dira. Garrantzitsuenen artean, honako hauek azpimarra ditzakegu:

- **Ezagutzak finkatzeko eta ikasleen interesa pizteko errepasorako ariketak, dinamika gamifikatuak eta role play-ak sartzea.** Eduki-multzo bakoitzean, ebaluazioak egin aurretik hainbat ariketa osagarri txertatu dira, moduluaren funtsezko edukiak errepasatzeko. Ariketa horien dinamika askotarikoa da, eta, beste mekanika batzuen artean, honako ariketa hauek aurki ditzakegu: hutsuneak betetzea, erantzun zuzena edo zuzenak aukeratzea, lehen zutabeko kontzeptuak bigarren zutabekoekin lotzea, fitxak dagokien kategoriara eramatea, letra-zopak, erruleta edo eguneroko egoerak simulatzeko aukera ematen duten role playak. Ariketa horiek guztiak automatikoki zuzentzen direnez, ikasleek berehala jaso dezakete atzeraelikadura, eta, gainera, nahi adina aldiz errepika daitezke.
- **Plataforman erantzun daitezkeen galdera irekien kopurua handitzea eta irakasleentzako ebazpen dokumentuak sortzea.** Urtero, programan berrikuntzak eta hobekuntzak egotea oso interesgarria dela uste dugu. Hori dela eta, ikasleek plataforman zuzenean erantzun ditzaketen galdera irekien kopurua handitu dugu (aukera gehiago egon daitezen eta irakasleek beren beharretara gehien egokitzen direnak aukeratu ditzaten), eta baliabide horren erabilera sustatuko duen ebazpen dokumentu bat sortu dugu.
- **Irakasleei beren taldeek aurrebaluazioetan eta ebaluazioetan lortutako emaitzak Excel formatuan deskargatzeko aukera ematea.** Irakasle-lana errazteko eta programarekin duten esperientzia ahalik eta onena izan dadin, interesgarria iruditzen zaigu irakasleek plataformako moduluetan lortu dituzten emaitzak deskargatu ahal izatea.

3. EAEn parte hartuko duten ikastetxeak

2021eko abenduak 1era arte, EAEko 248 ikastetxe gehitu dira Ekonomia eta zergak programara.

Jarraian Lurralde Historikoaren arabera sailkatuko ditugu:


- Araba: 27
- Bizkaia: 131
- Gipuzkoa: 90

3.1 Datu orokorrak

Gestionetek ikastetxe parte-hartzaileei aurkeztutako ibilbideak gogoratuko ditugu:

- **Murritzua:** lehen moduluaz (ikasleei aurkezpen multimedia) eta bigarren moduluaz (jolas mekanikak dituen online plataforma) osaturiko lau saioko ibilbidea.
- **Osoa:** lehen moduluaz (ikasleei aurkezpen multimedia), bigarren moduluaz (jolas mekanikak dituen online plataforma) eta hirugarren moduluaz (simulagailu sozioekonomikoa) osaturiko zazpi saioko ibilbidea.
- **Luzatua:** Ibilbide Osoa bezala baina hamar saiorekin.

Jarraian, Gestionetetik bidalitako galdeketari erantzun dioten 202 ikastetxe parte-hartzaileek aukeratutako ibilbideak erakusten dituen grafikoa erakutsiko dugu:




Ikus daitekeen bezala, gehiengoak 4 saioko ibilbidea aukeratu du (86 ikastetxe), ondoren 7 saioko ibilbidea (65 ikastetxe) eta, azkenik, 10 saioko ibilbide luzatua (44 ikastetxe).

Grafikoan "Misto" bezala agertzen denari buruz, ikasleen mailaren arabera ibilbide bat baino gehiago aukeratu duten ikastetxeak dira hauek. Zehazki, hurrengo konbinazioak adierazi dizkiguten 7 ikastetxe ditugu:


- LH 4 saio (talde 1) / LH 7 saio (talde 2)
- 4. DBH 4 saio / LH 10 saio
- LH 4 saio (talde 1 eta 2) / LH 7 saio (talde 3 eta 4)
- 4. DBH 7 saio / 1. Batx. 10 saio (hau aukeratu duten bi ikastetxe daude)
- 4. DBH 7 saio / 1. Batx. 4 saio
- 4. DBH 4 saio / 1. Batx. 7 saio

Programa landuko den **hizkuntzari** dagokionez, gehiengoak euskara aukeratu duela esan dezakegu. Hurrengo grafikoan zehatzago ikusiko dugu:




Ikus daitekeen bezala, ikastetxeen %69.31k euskara aukeratu du (140 ikastetxe), %22.28k gaztelania (45 ikastetxe) eta, azkenik, ikastetxeen %8.41k (17 ikastetxe) programa bi hizkuntzetan eskatu digute hizkuntza bietan klasea duten ikasleak dituztelako.

EKONOMIA ETA ZERGAK programa landu den **ikasgaiari** buruz, zenbait ikastetxe talde bat baino gehiagorekin landu dute eta, beraz, ikasgai bat baino gehiagotan, baina grafikoan ikus daitekeen bezala, irakasleen gehiengoak Ekonomia irakasgaian (162 ikastetxe) landu du programa:




Jarraian, ikastetxeetan programa garatu den ikasketa **mailari** buruzko grafikoa aurkeztuko dugu:



Ikus daitekeen bezala, gehiengoak programa 4. DBH-n landuko du.

Programan parte hartuko duten ikasle **kopuru** eta **generoari** buruz, hurrengo grafikoan agertzen den moduan, parte-hartzaileen gehiengoa gizonezkoa da, %49.69 (3.274 mutil) emakumezkoak, aldiz, %46.77 dira (3.082 neska) eta zehaztu gabekoak %3.54.




4. Araban parte hartuko duten ikastetxeak

Momentura arte, Arabako 27 ikastetxek parte hartuko dute **EKONOMIA ETA ZERGAK** programan.

4.1 Arabako datu estatistikoak

Jarraian, ikastetxe parte-hartzaileak aukeratutako **ibilbideen** grafikoa aurkeztuko dugu:




Ikusten den bezala, ikastetxeen gehiengoak 4 saioko ibilbidea (11 ikastetxe), jarraian 7 saioko ibilbidea (7 ikastetxe), ibilbide luzatua (3 ikastetxe) eta, azkenik mistoa (ikastetxe 1) aukeratu dute.

Grafikoan "Misto" bezala agertzen denari buruz, ikasleen mailaren arabera ibilbide bat baino gehiago aukeratu duten ikastetxeak dira hauek. Araban, zehazki, hurrengo konbinazioa adierazi digun ikastetxea dugu:

- DBH 4. maila 7 saio / 1 Batx 10 saio.

Programa lantzeko **hizkuntzari** dagokionez, hurrengo grafikoan zehatzago ikusiko dugu:




Ikus daitekeen bezala, 15 ikastetxek euskara aukeratu dute (%68.18) eta beste 5ek gaztelera (%22.73). Azkenik, bi ikastetxek (%9.09) programa bi hizkuntzatan eskatu digu hizkuntza bietan klasea duten ikasleak dituztelako.

EKONOMIA ETA ZERGAK programa landu egin den **ikasgaiari** dagokionez, grafikoan ikus daitekeen bezala, irakasle guztiek Ekonomia ikasgaiari landu egin du (22 ikastetxe):




Jarraian, programa ezarri den hezkuntza **maila** adierazten duen grafikoa aurkeztuko dugu:



Ikus daitekeen bezala, irakasleen gehiengoak programa DBHko 4. mailan lantzea aukeratu du (16 ikastetxe) eta 5 ikastetxek Batxilergoko lehenengo mailan landuko dute.

Parte hartuko duten ikasle **kopurua** eta **generoari** dagokionez, hurrengo grafikoa ikusten den bezala, parte-hartzaileen %40.94 emakumezkoa da (330 neska), %34.86 gizonezkoa (281 mutil) eta %24.19 zehaztu gabekoa.




5. Bizkaian parte hartuko duten ikastetxeak

Momentura arte, **EKONOMIA ETA ZERGAK** programan Bizkaiko 131 ikastetxek parte hartuko dute.

5.1 Bizkaiko datu estatistikoak

Jarraian, galdetegia erantzun duten Bizkaiko 109 ikastetxek aukeratuko **ibilbidea** azaltzen dituen grafikoa erakutsiko dugu:




Ikus daitekeen bezala, gehiengoak 4 saioko ibilbidea aukeratu du (46 ikastetxe), ondoren, 7 saiokoa (34 ikastetxe) eta azkenik, luzatua (25 ikastetxe).

“Misto” bezala adierazitakoei dagokionez, ikasleen mailaren arabera ibilbide bat baino gehiago aukeratu duten ikastetxeak dira. Bizkaian, zehazki, hurrengo konbinazioa adierazi diguten ikastetxeak ditugu:


- LH 4 saio (talde 1) / LH 7 saio (talde 2)
- 4. DBH 7 saio / 1. Batx. 10 saio (hau aukeratu duten bi ikastetxe daude)
- 4. DBH 7 saio / 1. Batx. 4 saio
- 4. DBH 4 saio / 1. Batx. 7 saio

Programa lantzeko aukeratu duten **hizkuntzari** dagokionez, gehiengoak euskara aukeratu duela esan dezakegu. Zehatzago ikusiko dugu hurrengo grafikoan:




Ikus daitekeen bezala, ikastetxeen %65.14k (71 ikastetxe) euskara aukeratu dute, %28.44k (31 ikastetxe) gaztelania eta, azkenik, ikastetxeen %6.42k (7 ikastetxe) programa hizkuntza bietan eskatu digute bi hizkuntzatan klasea duten ikasleak dituztelako.

EKONOMIA ETA ZERGAK programa landu duten **ikasgaiari** dagokionez, zenbait ikastetxe talde bat baino gehiagotan landu dute eta, beraz, ikasgai bat baino gehiagotan, baina grafikoan ikus daitekeen bezala, irakasleen gehiengoak (84 ikastetxe) programa Ekonomia ikasgaiari landu dute.




Jarraian, programa ezarriko den hezkuntza **maila** adierazten duen grafikoa daukagu:



Ikus daitekeen bezala, irakasleen gehiengoak programa DBHko 4. mailan lantzea erabaki du (62 ikastetxe), ondoren Batxilergoko 1go mailan (20 ikastetxe). Lanbide Heziketan landuko duten 17 ikastetxe daude, maila bat baino gehiagotan landuko duten 9 ikastetxe daude, eta 2. Batxilergoan landuko duen 1.

Programan parte hartu duten ikasle kopuru eta generoari dagokionez, grafikoan ikusten den bezala, ikasleen %49.87 emakumezkoa da (1.712 neska), %46.69 gizonezko (1.603 mutil) eta zehaztu gabeko %3.44.



5.2 Bizkaian bukatu duten ikastetxeak


2021eko abenduak 1era Bizkaiko 7 ikastetxek programa bukatu dute.

6. Gipuzkoan parte hartuko duten ikastetxeak

Momentura arte, **EKONOMIA ETA ZERGAK** programan Gipuzkoako 90 ikastetxek parte hartuko dute.

6.1 Gipuzkoako datu estatistikoak

Jarraian, galde-sortaren atal horri erantzun dioten 71 ikastetxek aukeratu dituzten **ibilbideak** erakutsiko ditugu:




Ikus daitekeen bezala, gehiengoak ibilbide murriztua aukeratu du (29 ikastetxe), jarraian 7 saiokoa (24 ikastetxe) eta, azkenik, luzatua (16 ikastetxe).

“Misto” bezala agertzen denari buruz, jakin, ikasleen mailaren arabera ibilbide bat baino gehiago aukeratu duten ikastetxeak direla hauek. Gipuzkoan, zehatzago, hurrengo konbinazioa adierazi diguten bi ikastetxe ditugu:


- 4. DBH 4 saio / LH 10 saio
- LH 4 saio (talde 1 eta 2) / LH 7 saio (talde 3 eta 4)

Programaren **hizkuntzari** dagokionez, gehiengoak euskara aukeratu duela esan dezakegu. Zehatzago ikusiko dugu hurrengo grafikoan:




Ikus daitekeen bezala, ikastetxeen %76.06k euskara aukeratu dute (54 ikastetxe), %12.67k gaztelania (9 ikastetxe) eta, azkenik, beste %11.27k (8 ikastetxe) bi hizkuntzatan eskatu digute programa, izan ere, hizkuntza bietan klasea jasotzen duten ikasleak dituzte.

EKONOMIA ETA ZERGAK programa landuko den **ikasgaiari** dagokionez, zenbait ikastetxek talde bat baino gehiagotan landu dute eta beraz, ikasgaia bat baino gehiagotan, baina, hala ere, irakasleen gehiengoak Ekonomia ikasgaian landu du programa (56 ikastetxe):




Jarraian, programa landu den hezkuntza **maila** adierazten duen grafikoa aurkeztuko dugu:



Ikus daitekeen bezala, irakasleen gehiengoak programa DBHko 4. mailan lantzea aukeratu du (47 ikastetxe), eta ondoren Batxilergoko 1go mailan (11 ikastetxe). Lanbide Heziketan egingo duten beste 10 ikastetxe daude eta maila ezberdinetan programa landuko duten 3.

Programan parte hartu duten ikasle **kopurua** eta **generoari** dagokionez, hurrengo grafikoan ikusten den bezala, parte-hartzaileen %54.79 gizonezkoa da (1.429 mutil), %41.37 emakumezkoa (1.079 neska) eta zehaztu gabeko %3.83.



6.2 Gipuzkoan bukatu duten ikastetxeak

2021eko abenduak 1era Gipuzkoako 6 ikastetxek programa bukatu dute.

7. Ikastetxeek lortu nahi dituzten helburuak

Gestionetek ikastetxe guztiei galdetu die, gelan programaren ezarpenarekin bilatzen dituzten helburuak.

2021eko abenduak 1era, 144 ikastetxek erantzun dute zeintzuk diren programaren ezarpenarekin bilatzen dituzten helburuak.

8. Programaren ezarpen-maila eta gauzatzea

2021eko abenduak 1era, 40 ikastetxe hasi dira programarekin.

9. Programaren probetxu-mailaren ebaluazioa

Programaren ikaskuntza mailaren ebaluaketa plataformaren ebaluaketa galde-sorten bidez neurtuko da. Bertan, ikasleek edukiak lantzen hasi aurretik "Zenbat dakizue?" galde-sorta egin beharko dute, zein gaiaren inguruan duten ezagutza mailaren erreferentzia izango den.

Eduki multzo bakoitza landu ostean, plataforman landutako edukiekin lortutako ezagutza maila neurtuko duen galde-sorta bat egin beharko dute.

Bi galde-sorta horien emaitzen arteko konparaketa da ezagutza maila jakiteko aukera ematen diguna. 2021eko abenduak 1era hauek dira emaitzak lurraldeka banatuta:

- Araba:

	Aurrebaluaketa	Ebaluaketa
Sektore publikoa	42.5	74.44
Tributuak	-	-
Iruzur fiskala	-	-

- Bizkaia:

	Aurrebaluaketa	Ebaluaketa
Sektore publikoa	49.92	72.7
Tributuak	53.43	73.95
Iruzur fiskala	55.51	80.62

- Gipuzkoa:

	Aurrebaluaketa	Ebaluaketa
Sektore publikoa	50.57	70.14
Tributuak	49.16	74.18
Iruzur fiskala	60	80.84

10. Irakasleek programari buruz egindako balorazioa

Plataforman dagoen gogobetetze galde-sortaren bidez, irakasleek programa baloratu ahal izango dute. Bertan, hurrengo galderak egiten zaizkie:

1. Plataformaren erabileraren erraztasuna.
2. Uhartearen erabilerari esker ikasleek iruzur fiskalaren ondorio negatiboak ulertu dituztela uste dut (4 saioko ibilbidea aukeratu baduzu ez erantzun).
3. Edukien egokitzapena ikasleen maila kontuan hartuta.
4. Edukien eta horiek lantzeko aukeratutako irakasgaiaren arteko harremana.
5. Gertakari eta zalantzen ebazpenean emandako erantzunen azkartasuna.
6. Programaren erabilgarritasuna.
7. Programa honetan erabilitako metodologia egokia ikusten duzu? (4 saioko ibilbidea aukeratu baduzu ez erantzun).

8. Errepikatuko zenuke?
9. Programak zure helburuak bete dituela uste duzu?
10. Programari esker Sektore Publikoarekin, Zergekin eta Iruzur fiskalarekin zerikusia duten ikasleen ezagutzak handitu direla uste dut.

Plataforman, irakasleen balorazioak aurkeztuko dira aukeratutako ibilbidearen arabera (4, 7 edo 10 saio) baita **batezbesteko balorazio (bost punturen gainean)**.

2021eko abenduak 1era ez da inkestarik jaso. Hurrengo txostenean gogobetetze galde-sorten emaitzak adieraziko dira.

